



VIII.AXARI TRAIL – ARAUDIA 2021

0.- OSASUN EGOERA – COVID19

Garaian garaiko egoerak, osasun arduradun eta udal agintariek ezarri ditzazketen arauak baldintzaturik egongo da Axari Trail mendi lasterketa. Oinarrizko baldintza hau onartu beharrean gaude, bai korrikalariak baita antolakuntza ere. Egoera berezi honek baldintzaturik, aurtengo araudia aldakorra izango dela onartu behar dugu. Ahalik eta informazio zehatzena eta eguneratuena ematen saiatuko gara uneoro sor daitezkeen osasun irizpideek eragindako edozein aldaketa suertatzen bada...

1.- DATA ETA LEKUA

Axari Trail Mendi Lasterketa, 2021eko Irailaren 12an izango da. Egoerak hala behartuta, Axari Trail eta Axari Trail Txikiren irteeran denbora tarte batez banatuak egongo dira.

Axari Trail mendi lasterketa: goizeko 09:30etan.

Axari Trail Txiki: goizeko 09:45etan.

Irteera eta amaiera puntuak Idiazabalgo plazan izango dira. Irteerako baldintzat, eguna gerturatzen denean zehaztuko dira, momentuan dauden osasun arauak oinarri hartuta.

2.- IBILBIDEAK

AXARI TRAIL: Idiazabalgo mendietan barrena pasatzen den lasterketa da AXARI TRAIL. 25,4 km-ko ibilbidea duela. +1550m desnibel positiboa dauka eta lasterketako punturik altuena palankaleku da, 979m-rekin.

AXARI TRAIL TXIKI: Lasterketaren ibilbide laburtua da. 16,4 km-ko ibilbidea duela. +758m desnibel positiboa dauka. KADETEEK derrigorrez egin beharreko ibilbidea hau izango da.

3.- KATEGORIAK

KADETEAK: 15,16 eta 17 urtekoak. Hauek, AXARI TRAIL TXIKI egin beharko dute derrigorrez eta gurasoen baimena aurkeztu beharko dute lasterketan parte hartu ahal izateko.

HELDUAK: 18 urtez gorakoak. Hauek, AXARI TRAIL edo AXARI TRAIL TXIKI egiteko aukera izango dute.

- GIZONEZKO BETERANO SUB-KATEGORIA: 45 urtez gorakoak.
- EMAKUMEZKO BETERANO SUB-KATEGORIA: 40 urtez gorakoak.

OHARRA: Kontuan hartuko den adina, korrikalariak 2021 urte honetako abenduaren 31n duen adina izango da.

4.- IZEN-EMATEA

AXARI TRAIL TXIKI:

- KADETEAK → 7 €
- HELDUAK → 25 €

AXARI TRAIL:

- HELDUAK → 25 €

* Izena emateko epea: 2021ko Uztailaren 12tik Irailaren 7 rarte (barne): soilik internetez egin daiteke. www.kronoak.com webgunean.

* OHARRAK:

1. Ez da izenemate ezeztapen eperik egongo. Eskararik balego, antolakuntza taldeak aztertuko ditu kasu guztiak banan banan eta erabaki bat hartu.
2. COVID-19 egoerak behartuta, osasun arduradun eta udal agintarien irizpideak jarraituz, Axari Trail mendi lasterketa bertan behera geratuko balitz, antolakuntzak dirua ez itzultzeko eskubidea izango du. Lasterketa antolaketari dagozkien gastuei aurre egin ahal izateko beharrezkoa bait du. Horren ordainetan, izenematea egin duen orok, korrikalari poltsa eta lasterketako oroigarri den kamixeta jasotzeko eskubidea izango du. Horretarako, zehaztuko diren egun eta orduetan Idiazabaldik pasatu beharko luke.
3. Inoiz baino gehiago, izenematea egiteak, arautegi hau onartzea dakar.

5.- SEGURTASUNA

Antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu. Gurutze Gorriaren laguntza izango dugu.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

6.- SEINALEZTAPENA

Ibilbidea eta kilometroak (5 kilometroro) behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kartel adierazleekin.

7.- KONTROLAK

Probaren luze-zabalean antolakuntzak kontrol guneak jarriko ditu eta bertatik igarotzea ezinbestekoa izango da, gune hauetan egingo baitira arauzko igarotze-kontrolak.

Kontrolak eta lasterketako paso-denborak (gehienez):

1) Arteitza lehen paso-kontrola (9 Km.): 1 ordu 30 min.

2) Arteitza bigarren paso-kontrola (18,5 Km.): 3 ordu 30 min.

Denbora hauek kalkulatuta daude proba 4:30 ordutan amaitzeko. Denbora hauetatik aurrera, lasterkariaren ardura izango da bere kabuz helmugara iristea.

8.- HORNIDURA

Helmugakoaz gain, 6 horniketa puntu atonduko dira. Postu hauetan freskagarriak eta janaria eskainiko zaizkie partehartzaileei. Partehartzaile bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du.

9.- SAILKAPENA

EMF-FVMen araudiaren arabera egingo da kronometraia. Sailkapena argitaratu ondoren, 30 minutu egongo dira edozein erreklamazio egiteko. Denbora pasa eta gero, ofizialak egingo dira sailkapenak.

10.- SARIA EKONOMIKOAK

AXARI TRAIL

Scratch Sailkapena Gizonezko / Emakumezkoak

- 1.- Txapela, 300 € eta garaikurra.
- 2.- 200 € eta garaikurra.
- 3.- 100 € eta garaikurra.

Errekorra egiten duenak sari berezi bat izango du: 100€

Mutiletan: 1:58:22 (Aritz Egea 2014)

Nesketan: 2:19:20 (Maite Maiora 2015)

AXARI TRAIL TXIKI lasterketak ez du sari ekonomikorik izango.

11.- PODIUM-ak

AXARI TRAIL: Kategori hauetako lehen hiruarekin egingo dira podium-ak:

- Scratch Sailkapena Gizonezko / Emakumezkoak
- BETERANO Gizonezko / Emakumezkoak

AXARI TRAIL TXIKI: Kategori hauetako lehen hiruarekin egingo dira podium-ak:

- Scratch Sailkapena Gizonezko / Emakumezkoak
- KADETE Gizonezko / Emakumezkoak

* Podium hauetaz aparte, zehazteke dauden beste sailkapen batzuk egingo dira: Herritarrak, Goierri Kopa,...

12.- DORTSALEN BANAKETA

Dortsalak, txipak eta lasterkariaren poltsa Udal pilotalekuan banatuko dira:

Larunbatean: 17:00-20:00

Lasterketa egunean: 07:30etatik – 09:00era.

* OHARRA: Lasterkariaren poltsaren billa etortzen ez denak, berarekiko dituen eskubide guztiak galduko ditu. Ez da korrikalariaren etxera bidaltzeko eskaririk onartuko.

13.- INGURUGIROA

Lasterketa mendi inguru zein lur pribatuetatik igaroko da. Ingurunea ahal beste zaintzeko, kontrol-guneetatik kanpo zaborrak ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei. Helburu horretarako, hornitze guneetatik gertu zaborrontziak ezarriko dira, 25 eta 50 metrora.

Oinarrizko arau hau betetzen ez duten korrikalariak, probatik kanpo utziko dira.

14.- KONTSIGNA ETA DUTXAK

COVID-19 a dela eta dutxa eta konsigna zerbitzuak ematerik ez da izango.

15.- IBILBIDEAREN SEGURTASUNA

Antolakuntzak, proba ordezeko ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

16.- LAGUNTZA EZBEHARRETAN

Partehartzaileek betekizun izango dute istsripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

16.- ERANTZUKIZUNA

Proban izena ematen duten guztiek, borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideak eta beraien oinordekoek erantzunkizun zibilar dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak, ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango, helburu horrekin erropa kontsigna zerbitzu bat izango baita helmuga bertan.

Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonari eragindako kalte ororen erantzukizuna.

17.- PARTAIKEN KOPURUA

Probaren gehienezko parte hartzaile kopurua: 400

AXARI TRAIL: 200

AXARI TRAIL TXIKI: 200

OHARRA: Eskarien arabera eta antolakuntzak horrela nahi izan ezker, kopuru hauek aldatzeko eskubidea izango du.

18.- ARAUDIAREN ONARPENA

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena EMF-FVM-ren araudia kontuan izanda ikusiko da.

ARGIBIDEAK: info@axaritrail.eus

ZUZENDARI TEKNIKOA: AIMAR LIZARAZU